

SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA

7. BEZEREKIKO HARREMANAK

VAJUMAS enpresan, kontutan hartu dugu teknologiak garai honetan duen eragina, horregatik erabaki dugu gure produktuak zerbitzu automatizatu baten bidez eskaintzea, lehen aipatutako web-orri baten bidez. Bertan, gure bezeroek gure produktuei buruz behar duten informazioa eskuratu ahal izango dute, azkenik hura erosteko.

Web orrialdearen izena www.VAJUMASCAM.com da eta autonomia-erkidego guztien, lizentziatuen eta seguritatearen merkatuan lan egiten duten enpresen eskura egongo da. Web-orrian hiru atal aurkituko dituzue, bezero mota bakoitzarentzat egokituta egongo direnak. Hortaz a parte, baita hurrengo aurkitu ahal izango duzue:

- Gurekin harremanetan jartzeko helbide elektroniko bat, eragozpenik izanez gero.
- Kontaktu zuzena nahi izanez gero, autonomia-erkidego bakoitzan kokatuta dauden lokalen helbideak.
- Atal bat zerbitzuaren balorazioa emateko nahi izanez gero
- Produktuaren bermetasuna azaltzen duen atala(3 urtekoa izango da)

Gure webgunea hainbat hizkuntzatan eskuragarri egongo da: euskaraz, galegoz, katalanez...Gure bezeroek erosoago dauden hizkuntzatan haien erosketak egin ditzaten.

Eskaerei dagokienez, gutxienez 24 ordutan iritsiko dira eta gehienez 96 ordutan, gure kamerak lortzeko behar diren lizentziak dituzten zibilen kopuru murriztuari dagokionez. Erakunde eta enpresentzat, berriz, eskaerak azkarragoak izango dira, 12 eta 24 ordu bitartekoak, (adierazitako denboran ez badira heltzen kamerak deskontu nabarmen bat egingo da). Gainera, erosleak bere eskaeraren jarraipena egiteko aukera izango du webgunean bertan.